

2015



dFERIA 2015 XXI. Arte eszenikoak Hizkuntza erabileraren neurketa

BAGERA ELKARTEA

Hernani kalea 15, behea
20.004 Donostia
bagera@bagera.eus

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
2. Metodologia.....	3
3. Ahozko Erabilera	4
3.1. Ikuskizunak.....	6
3.2. Ikuskizunen Aurkezpenak	6
3.3. Aurkezpen Prentsaurrekoak.....	7
3.3.1. Irudi eta programazio aurrerapena.....	7
3.3.2. Programazio eta jarduera paraleloak	7
3.4. Konpainien aurkezpen prentsaurrekoak.....	7
3.5. Balorazio prentsaurrekoa.....	7
3.6. Jendaurreko zerbitzuak.....	7
4. Idatzizko Materiala.....	8
4.1. Programazio Liburuxka.....	8
4.2. Esku Orriak, Sarrerak,.....	8
4.3. Prentsa Dossierrak.....	8
4.4. Posta Elektronikoa.....	9
4.5. Web Orria.....	9
5. Ondorioak Eta Proposamenak.....	10

1. SARRERA

BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkarteak, euskararen erabilera areagotzea ardatz duela, dFERIAren hizkuntza erabileraren neurketa egin du. Orain arte, Donostiako aisialdian eragina duten beste ekintza nagusietan egiten dugun bezala: Giza Eskubideen Zinemaldian, Aste Nagusian, Jazzaldian, Zinemaldian eta Beldurrezko eta Fantasiako Zinemaldian.

Garrantzitsua da oso eguneroko bizitzan euskararen erabilera normalizatzea. Era berean, gizarteari eskaintzen zaizkion aisialdirako kultur ekitaldietan euskararen presentzia areagotzea oso garrantzitsua da. Ostera ere, gogorarazi behar dugu euskara hizkuntza ofiziala dela Euskal Autonomi Erkidegoan eta, halaber, Donostiako udal ordenantzek, euskarari ofizialtasun hau aitortzeaz gain, Udalak antolatutako ekintza guztietan lehentasuna izan behar duela esaten dutela.

Jakin badakigu ere, Donostiako Antzerki feria merkatu profesional bat dela non programatzaile gehienak Euskal Herritik kanpokoak diren. Hala nola, aurtengo dFERIAN Espainia, Mexiko, Uruguai, Argentina, Frantzia, Dominikar Errepublika, Brasil, Ekuador, eta Kolonbiako programatzaileak izan dira. Baina era berean, sarrerak Donostiako hiritar orok eskura ditzake.

Hau horrela, dFERIAN antolatzen diren jardueretan euskararen erabilera idatzia zein ahozkoa areagotzea du helburu Bagerak; hau da, dFERIAN euskararen presentzia normalizatzea.

2. METODOLOGIA

Feriak bere gain hartzen dituen ahozko ekitaldi nahiz idatzizko euskarriak neurtzen saiatu gara: ikuskizunen aurkezpenak, Feriak eman dituen ikuskizunak, jarduera paraleloak, programazio aurrerapenaren txostena, programazio gida, kartelak, web orria etab. neurtu ditugu.

Neurketa egiterakoan, hizkuntza erabilera 2 ataletan azaldu dugu eta kasu guztietan ele bitan egin zela adierazten dugunean, zehazki, euskaraz eta gazteleraz egin zela esan nahi dugu:

a) Ahozko erabilera: Antzezlanak, dantzak, ekitaldi nagusiak, prentsaurrekoak, aurkezpenak eta jendaurreko zerbitzuak aztertzen ditugu atal honetan. Zein hizkuntza erabiltzen den eta bakoitza zein neurritan erabiltzen den hartzen dugu kontuan.

b) Idatzizko materiala: Idatzizko material ugari izaten da dFERIAN. Antolakuntzaren argitalpenak (programazio liburuxka, prentsa dossierrak, esku orriak ...), kartelak, web gunea, errotulazioak etab. izaten ditugu aztergai.

3. AHOZKO ERABILERA

3.1. Ikuskizunak

Hona hemen laburbilduta ikusitako **ikuskizunen zerrenda** eta daturik nabarmenenak:

Martxoak 9

17:00etan LA NOCHE ARABE Gazteszenan

Aurkezpenik ez zen izan. Ikuskizuna gazteleraz egin zuten eta atzean zuten pantailan frantsesez eta ingelesez azpidatzita. Konpainiaren esku orria gazteleraz idatzia.

Obra honen aurretik, **Demode Quartet Taldeak "Epa!"** bere bigarren ikuskizuna taularatu zuen euskaraz.

19:00etan EQUUS, Antzoki Zaharrear

Aurkezpena bi eletan egin zen. Lehenik euskaraz eta jarraian gazteleraz. Ikuskizuna gazteleraz.

21:00etan SOLICITUDES, Victoria Eugenia Antzokian

Aurkezpena off ahotsean bi eletan. Antzerki obra, berriz, hizkuntza gabea.

Martxoak 10

10:00etan NEW ORLEANSKO CYRANO, Lugaritz Kultur Etxean.

Aurkezpena euskaraz eta jarraian gazteleraz. Antzerki obra euskaraz.

20:00etan NEW ORLEANSKO CYRANO, Lugaritz Kultur Etxean.

Aurkezpenik ez. Antzerki obra gazteleraz.

11:30ean EL CIELO AHORA, Intxaurrondo Kultur Etxean

Aurkezpenik ez zen egin. Obra gazteleraz.

13:00ean PEREZA, Egiako Kultur Etxean (Gazteszena).

Aurkezpenik ez zen izan. Dantza ikuskizuna hizkuntzarik gabe.

14:30ean MUGALARIAK proiektuaren aurkezpena Gazteszenan

Aurkezpena gazteleraz soilik.

17:30ean IRAKURRIZ, Victoria Eugenia Klubean.

Aurkezpenik ez zen egin. Dantza obrak ez zuen hizkuntzarik.

17:30ean GORPUTZA, Victoria Eugenia Klubean.

Aurkezpenik ez zen egin. Obra gazteleraz gehien bat (%90 gazteleraz %10 euskaraz).

18:45ean UN OBUS EN EL CORAZON, Antzoki Zaharrean

Aurkezpena bi hizkuntzatan. Lehenengo euskaraz eta jarraian gazteleraz. Antzerki obra gazteleraz.

20:30ean LA CALMA MAGICA, Victoria Eugenia Antzokian

Aurkezpenik ez zen egin. Ikuskizuna gazteleraz.

Martxoak 11

10:00etan L'HOMME ASSIS, Lugaritz Kultur Etxean.

Aurkezpenik ez zen egin. Obra hizkuntza gabea.

13:00ean TOUTES LES FILLES DEVRAIENT AVOIR UN POEME, Gazteszenan

Aurkezpenik ez zen egin. Obran lau hizkuntza erabili ziren (frantsesa %40a, ingelesa %30a, gaztelera %25a eta euskara %5a).

17:30etan LAU ESKU, Victoria Eugenia Klubean.

Aurkezpenik ez zuen izan. Antzerki obra ere hizkuntza gabea.

17:30ean INNINGS, Victoria Eugenia Klubean.

Aurkezpenik ez zuen izan. Antzerki obra ere hizkuntza gabea.

19:00etan EL REPORTAJE, Antzoki Zaharrean.

Aurkezpena bi hizkuntzatan izan zen. Lehenengo euskaraz eta jarraian gazteleraz. Ikuskizuna berriz, gazteleraz.

Martxoak 12

20:30ean MALDITO SEA EL TRAIADOR A SU PATRIA, Victoria Eugenia Antzokian.

Aurkezpena bi hizkuntzatan egin zuten. Lehenengo euskaraz eta jarraian gazteleraz. Antzerki obra berriz eslovenieraz (%90) eta ingelesez (%10). Azpidatziak euskaraz eta gazteleraz.

Martxoak 13

10:00etan TRIPLE SALTO, Lugaritz K.E

Aurkezpenik ez zen egin. Obra gazteleraz.

12:00etan JAUI HIRUKOITZA, Lugaritz K.E

Aurkezpenik ez zen egin. Obra euskaraz.

Dferia2015 hasi aurretik, martxoaren 7an eta 8an, GAU ARABIARRA euskaraz estreinatu zen Gazteszena aretoan dFERIAk kaleratzen duen programazio esku orrian agertu ez zen arren.

3.2. Ikuskizunen aurkezpenak

Orokorrean ez da aurkezpenik izan eta aurkezpena izan duten kasuetan ele bitasuna mantendu da. Bestetik, oharrak eman dituzten kasuetan ere, ele bitasuna mantendu da.

3.3. Aurkezpen prentsaurrekoak

3.3.1. Irudia eta programazio aurrerapena

Otsailaren 6an, dFERIA 2015eko irudia eta programazio aurrerapen bat aurkeztu zen Victoria Eugenia Antzokiko Klub Aretoan, goizeko 11:00etan.

Prentsaurrekoan izan ziren: Nerea Txapartegi (Udal Gobernuaren Euskara eta Kultura arduraduna), Garazi Lopez de Etxezarreta (Foru Aldundiko Kultura zuzendaria), José Luis Ibarzabal (Eusko Jaurlaritzako antzerki teknikaria), Matias Umpierrez (artista eta eszena zuzendaria) eta Norka Chiapusso (dFERIAko zuzendaria).

Nerea Txapartegik eman zion hasiera prentsaurrekoari gonbidatuak euskaraz aurkeztuz. Ondoren, dFERIAren azalpen bat egin zuen bi eletan. Hizkuntza bakoitzean informazio propioa emanaz. Jarraian gonbidatuak banan-banan hartu zuten hitza, Garazi Lopez de Etxezarretak eta José Luis Ibarzabalek euskaraz. Norka Chiapusok berriz, bi hizkuntzak erabili zituen eta Nerea Txapartegik bezala hizkuntza bakoitzean informazio propioa eman zuen. Azkenik, Matias Umpierrez artista eta eszena zuzendari argentinarrak hartu zuen hitza eta gazteleraz aritu zen.

Bukatzeko, Nerea Txapartegik galdera tarte euskaraz zabaldu zuen. Matias Umpierrez egin zioten galdera gazteleraz.

3.3.2. Programazioa eta Jarduera Paraleloak

Otsailaren 19an, dFERIA 2015eko programazio osoa eta Jarduera Paraleloak aurkeztu ziren Victoria Eugenia Antzokiko prentsa aretoan, eguerdiko 12:00etan.

Norka Chiapusso dFERIAren Zuzendaria izan zen prentsaurrekoan. Prentsaurreko osoa bi hizkuntzatan egin zuen. Sarrera eta obren zuzendarien eta aktoreen azalpena hizkuntza bakoitzean informazio propioa eman zuen. Ikuskizunen nondik norakoak, berriz, euskaraz lehendabizi eta gazteleraz ondoren itzulitako testuak irakurri zituen.

3.4. Konpainien aurkezpen prentsaurrekoak

Atal honetan dFERIAko ikuskizunak aurkezteko astean zehar egin diren prentsaurrekoak hartu ditugu kontuan. Aurten egun bateko prentsaurrekoak neurtu ditugu (7 prentsaurreko orotara).

Prentsaurreko hauetan, dFERIAren arduraduna den Norka Chiapusok ematen zien hasiera prentsaurreko guztiei. Sarrera labur bat izaten zen gonbidatuak aurkezteko, orokorrean, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz.

Ondoren, gonbidatuen esku geratu ohi zen hizkuntzaren erabilera. Euskaraz zekiten gonbidatuek euskaraz egin zuten orokorrean.

3.5. Balorazio prentsaurrekoa

Aurten ez da balorazio prentsaurrekorik egin. Posta elektronikoz jaso dugu dFERIAko XXI. edizioaren balantzea, euskaraz.

3.6. Jendaurreko zerbitzuak

Jendeari erantzuteko zerbitzuetan nolako harrera jaso ahal izan dugun ere neurtu nahi izan dugu. Hainbat ekitalditan zeuden laguntzaileekin euskaraz egin ahal izan dugu.

4. IDATZIZKO MATERIALA

Oro har, dFERIAko antolakuntzari dagokion idatzizko materiala ele bitan izan da.

4.1. Programazio liburuxka

31 orrialdeko aldizkaria da. Azalean kartel ofiziala du, ele bitan. Kontrazalean, berriz, antolatzaileen eta laguntzaileen logotipoak daude. Barruan, azaltzen den informazio guztia elebitan dago. Ikuskizunen azalpenaren kasuan, euskarazko testuak letra zuriz idatzita daude eta gaztelarazko paragrafoak urdinez.

Bestetik, iragarki bakarra dago (Gipuzkoako Foru Aldundiarena) euskaraz.

4.2. Esku orriak, sarrerak...

Atal honetan dFERIA inguruan sortzen den gainerako material idatzia biltzen dugu, jende gehienarengana iristen den materiala.

Aurten ere, Donostia Kulturak, parte hartu duten ikuskizun bakoitzeko esku orri bat kaleratu du. Bertan, obraren irudia, izenburua, eguna, ordua, lekua, obraren azalpen labur bat eta fitxa teknikoa dago. Azaltzen den informazio guztia bi eletan idatzia dago. Alde batean euskaraz eta bestean gaztelaraz.

Victoria Eugenia Antzokian, Victoria Eugenia Antzokiak berak, kaleratutako esku orriak banatu dituzte bertan izan diren ikuskizunekin. Guztiak bi eletan.

Bestetik, Konpainiek kaleratutako 9 esku orri jaso genituen, 9ak gaztelara hutsez idatzita zeuden (*La Calma mágica, Equus, La noche Arabe, El reportaje, New Orleanseko Cyrano, Solicitudes, Todas las chicas tendrían que tener un poema, El cielo ahora eta Un obús en el corazón*). Deigarria da hauetako bi ikuskizunen obren konpainiak bertakoak izanda eta obra bakoitzetik bi emankizun eskaini ondoren – bata euskaraz eta bestea gaztelaraz- konpainia berak argitaratutako esku orriak gaztelara hutsez banatu izana (Gau Arabiarra eta New Orleanseko Cyrano).

Akreditatuen poltsan jasotako materialean Artez aldizkaria banatu zuten. Aldizkariak kaleratzen dituen berriak gaztelaraz badira ere, dFERIAk argitaratutako informazio guztia bi eletan zegoen. Bestalde, Victoria Eugenia Antzokian urtariletik ekainera izango diren jarduerekin liburuxka bat zegoen. Hau ere bi eletan.

Azkenik, emanaldietarako eskuratu ditugun sarreretan informazioa gehiena bi eletan dago baina badaude hutsune batzuk: kaleen izenak (Jalái Alai s/n, Paseo de Heriz, Mayor, ...), subtítulos francés e inglés, estreno estado.

4.3. Prentsa dossierrak

dFERIAren aurkezpen eta balorazio dossierrak ele bitan jaso ditugu.

Asteaz zehar, dFERIA-n parte hartu duten konpainien prentsaurrekoetan banatu zituzten dossierretatik aldiz, gehienak gaztelara hutsez banatu zituzten.

4.4. Posta elektronikoa

Posta elektroniko bidez jasotako prentsa oharretan, informazio gehiena euskaraz edo ele bitan jaso dugu eta antolakuntzakoekin izan ditugun mezu trukeak euskaraz egin ditugu.


4.5. WEB gunea

dFERIAren webgunea zabaltzerakoan norberak ordenagailuan konfiguratuta duen hizkuntzan irakur daiteke. Ondoren, euskaraz edo gazteleraz irakurtzeko aukera ematen du (euskarazko bertsioan zabaltzen bada "euskaraz" klikatuz eta gaztelerazko bertsioan zabaltzen bada "español" klikatuz). Informazio guztia bi hizkuntzetan eskuratzeko aukera ematen du.

5. ONDORIOAK ETA PROPOSAMENAK

Orain arte azaldutako datuak aztertuz, atalez atal balorazio orokor bat egingo dugu jarraian.


Ahozkoan eta **ikuskizunetan** erabilitako hizkuntzari dagokionez, euskararen eta gaztelaren presentzia eta erabilera ez dira parekoak izan. Are gehiago, aurtun, euskarazko ikuskizunetan euskararen presentziak ehunekotan, behera egin du (%58,33a gaztelaraz, % 13,89a euskaraz, % 22,22a hizkuntzarik gabe eta % 5,56a beste hizkuntza batean). Ikuskizunen kopuruari dagokionez 29 ikuskizunen 34 emanaldi programatu dira (21 emankizun gaztelaraz, 4 euskaraz eta beste bat euskaraz azpidatzita, 8 testurik gabe eta 2 beste hizkuntza batean izan dira). Iazko datuekin alderatuta, euskarazko ikuskizunek beherakada handia izan dute % 28,12tik %13,89ra hain zuzen. Gaztelaraz antzeztutako ikuskizunek, berriz, gora egin dute %50etik %58,33ra. Beste hizkuntzaren batean eta hizkuntzarik gabekoak obretan, aldiz, zertxobait gora egin dute baina portzentajetan antzera mantendu dira %22,86tik %22,22ra hizkuntza gabeko kasuan eta beste hizkuntza batean 5,71tik %5,56ra izan dira. Hona hemen grafikoa:



Ikuskizunen jatorriari erreparatuz gero %45 (iaz %53a) euskal ekoizpenak izan dira, %27 (%30a) Estatuko gainontzeko autonomi erkidegoetakoak eta %25a (iaz %20a), atzerrikoak.

Ikuskizunen aurretik egin diren **aurkezpenak**, gutxi izan badira ere, elebitasuna mantendu da.

Asteaz zehar egin diren **prentsaurrekoak** orokorrean hartuta, gaztelera gailentzen da konpainietako gonbidatuak erdal dunak izan ohi direlako. Hala ere, euskaraz dakiten gonbidatuak orokorrean euskaraz egin dute. Bestetik, Norka Chiapusok aurkezpenetan bi hizkuntzak erabili zituen.



Jarduera osagarrietan aipatu beharra dugu, Pereza ikuskizunaren ostean Fernando Piñeirok (Kultur programatzailea) eta Iker Tolosak (D2016ko ordezkaria) Mugalariak proiektuari buruzko aurkezpena egin zutela. Biek gaztelera hutsez egin zuten bertako proiektua izanik eta bi ordezkariak euskaraz jakinda.

Idatzizko materialari dagokionez, antolakuntzak kaleratzen duen materialean (esku programa, programazio liburuxka, web orria, dFERIAko esku informazioa, kartela, ...) ele bitasuna mantendu den arren, hutsune nabarmenena astean zehar egiten diren prentsaurrekoetan antolakuntzatik banatzen dituzten prentsa dossierretan (hau da, Donostia Kulturak dFERIAN parte hartuko duten konpainien prentsarako dossierretan) topatu dugu.

Bestetik, aurten ere, antolakuntzatik esku orri bat kaleratu zuen ikuskizun bakoitzeko eta guztiak bi eletan idatzita zeuden (alde batetik euskaraz eta bestetik gazteleraz). Hau positibotzat baloratzen du BAGERA Elkarteak konpainia gehienek kaleratzen dituzten esku orriak gaztelera hutsez izan ohi direlako (aurten konpainiek banatutako esku orri guztiak gazteleraz jaso genituen). Kasu honetan atzera pausua ikusi dugu.

Laburbilduz, BAGERA Elkarteak, aurtengo dFERIA2015 edizioan euskararen erabileran prentsaurrekoetan aurrerapausoak ematen jarraitu direla deritzo, hala nola, gonbidatu euskaldunak izan direnean euskara erabili baitute orokorrean; baina ikuskizunetan, aldiz, atzerapausoa eman da (euskarazko obrak behera egin baitute).

Material idatzian, hutsunerik handiena berriz, antolakuntzatik banatzen diren prentsa dossierretan dago. Baina aipatzekoa da, aurten ere ikuskizun bakoitzeko kaleratu diren esku orriak bi eletan idatzita zeudela eta esku orri hauek dira herritarrei banatzen zaizkienak ikuskizunetan. Bestetik, konpainiek kaleratu dituzten esku orri edo euskarriak gaztelera hutsez izan dira.

Guzti hau kontutan hartuta, ondokoa proposatzen die BAGERA Elkarteak dFERIAren antolatzaileei: prentsaurrekoetan euskara erabilera areagotzen jarraitzea, prentsa dossier guztietan, gutxienez, elebitasuna bermatzea eta lortutako aurrerapausoetan sendo mantentzea (prentsaurrekoetan, aurkezpen berezietan, ikuskizunen kopuruan). Bide horretan, BAGERAren esku dagoen heinean, laguntza behar izanez gero, beti prest izango gaituzue.

BAGERA Elkarteak
 Katalina Eleizegi 36, behea
 20009 Donostia
 Tel: 943467181
 bagera@bagera.net

